



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 14a

79. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Nafarroako Kontseilua, 2020” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Nafarroako Kontseilua, 2020” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Nafarroako Kontseilua, 2020” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

“Nafarroako Kontseilua, 2020” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Nafarroako Kontseilua (3. or.).
- III.** Xedeak eta irismena (4. or.).
- IV.** Iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa (4. or.).
 - IV.1. Auditoretza finantzarioko iritzia (5. or.).
 - IV.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (5. or.).
- V.** Nafarroako Kontseiluaren 2020ko urteko kontuen laburpena (6. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren likidazioa (6. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta. (6. or.).
 - V.3. Diruzaintzako gerakina (7. or.).
 - V.4. Balantzea (7. or.).
 - V.5. Ekonomia eta ondare emaitzako kontua (8. or.).
 - V.6. Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria (8. or.).
 - V.7. Eskudiru-fluxuen egoera-orria (8. or.).
- VI.** Konklusioak eta gomendioak (9. or.).
 - VI.1. Aurrekontu-likidazioa (9. or.).
 - VI.2. Aurrekontuetako gastuak (10. or.).
 - VI.3. Aurreko urteetako gomendioen betetzea (10. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2021erako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren (aurrerantzean, Kontseilua) 2020ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarrenean, Kontseiluaren datu esanguratsuenak deskribatzen ditugu; hirugarrenean, gure fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa identifikatzen ditugu; laugarrenean, Kontseiluaren 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko iritzi finantzariora eta legezkotasuna betetzeari buruzkoa ematen ditugu; horren laburpena bosgarren atalean jasotzen da. Seigarren atalak egindako lanetik ateratako ondorioak eta gomendioak jasotzen ditu.

Landa-lana 2021eko apirilean egin du lantalde batek, zeina auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatua baitzegoen. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzara ere izan dute.

Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Kontseiluko lehendakariari azaldu zitzaizkion, kasu bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Kontseiluko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

II. NAFARROAKO KONTSEILUA

Nafarroako Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 28. ter artikuluan esaten den moduan, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da, eta bere funtzioak autonomia organiko eta funtzionalarekin betetzen ditu, bere objektibotasun eta independentzia bermatze aldera.

Bere eginkizunetan diharduela, ordenamendu juridikoa gordetzen dela begiratuko du eta abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdiak baloratuko ditu, bai eta Administrazioak eraginkortasun handiagoa izatea ere bere helburuak betetzerakoan.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legearen 2. artikuluan xedatzen denez, Kontseilua bost kidek osatzen dute, izen aitortua dutenak eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak.

Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Kontseiluko kideek hautatzen dituzte lehendakaria eta idazkaria. Nafarroako Kontseiluko kideen ordainsariak dieta-sistema baten bidez ordaintzen dira eta kalte-ordain batzuk jasotzen dituzte txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Kontseiluari 2020an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.
- 8/2016 Foru Legea, ekainaren 9koa, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.
- 90/2000 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregelamendua onesten duena.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 13/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 10/2020 Foru Legea, apirilaren 8koa, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duena.

III. XEDEAK ETA IRISMENA

Kontseiluaren 2020ko ekitaldiko finantzei eta lege-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin da, honako honi buruzko iritzia emateko:

- Ea 2020ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duten 2020ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei jarraikiz.

- Ea Kontseiluak 2020ko ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

- Aurreko urteetako gomendioen betetzea.

Nafarroako Kontseiluaren 2020ko urteko kontuen fiskalizazioaren norainokoa. Honako kontabilitateko egoera-orriak biltzen dituzte:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria
- Egoera-balantzea
- Ekonomia eta ondare emaitzako kontua
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria
- Oroitidazkia

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2020ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legeria betetzeari dagokionez, norainokoa txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei dagokie.

IV. IRITZI FINANTZARIOA ETA LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKOA

Nafarroako Kontseiluaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Nafarroako Kontseiluaren erantzukizuna

Kontseiluko lehendakaria da urteko kontuak egiteko ardura duena. Urteko kontu horiek, Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkio, onets ditzan, halako moduz non irudi zehatza azalduko baitute Kontseiluaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Kontseiluko lehendakariak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta egin diren eragiketen legezkontasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, zehazki, ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruz-

koa. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbaterokoei eta urteko kontuetan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkontasunari buruz ere.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkontasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan — entitateak urteko kontuak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du finantza-auditoretzari eta legeen betetzeari buruzko gure iritzia funtsatzeko.

IV.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, 2020ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Nafarroako Kontseiluaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2020ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoiei dagokienez ere, betiere aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Nafarroako Kontseiluaren 2020ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

V. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2020KO URTEKO KONTUEN LABURPENA**V.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****Diru-sarrerak kapituluz kapituluz**

	Behin-behineko aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	425.382	425.382	379.949	379.949	89
7. Kapital-transferentziak	28.000	28.000	1.397	1.397	5
Diru-sarrerak, guztira	453.382	453.382	381.346	381.346	84

Gastuak, kapituluz kapituluz

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Betetzera (%)
1. Langile-gastuak	205.012	205.012	148.400	148.400	72
2. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	220.370	220.370	95.870	95.870	44
6. Inbertsio errealak	28.000	28.000	1.396	1.396	5
Gastuak, guztira	453.382	453.382	245.666	245.666	54

V.2. AURREKONTU-EMAITZA.

Kontzeptua	2019				2020			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Doitzeak	Aurrekontu-emaizta	Aitortutako eskubide garbiak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Doitzeak	Aurrekontu-emaizta
a. Eragiketa arruntak	377.049	295.271		81.778	381.346	245.666		135.680
b. Kapital-eragiketak	0	0		0	0	0		0
c. Merkataritza-eragiketak	0	0		0	0	0		0
1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	377.049	295.271	0	81.778	381.346	245.666	0	135.680
d. Aktibo finantzarioak	0	0		0	0	0		0
e. Pasibo finantzarioak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	0	0		0	0	0		0
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta (I=1+2)	377.049	295.271		81.778	381.346	245.666		135.680
Doitzeak								
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			0				0	
Aurrekontu-emaizta doituak (I+II)				81.778				135.680

V.3. DIRUZAINTZAKO GERAKINA

Kontzeptua	2019		2020	
1. (+) Funts likidoak		89.907		139.368
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak		0,49		82
(+) Ekitaldiko aurrekontuenak	0		0	
(+) Aurrekontu itxienak	0		0	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	0,49		82	
(+) Merkataritzako eragiketenak	0		0	
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak		8.130		3.770
(+) Ekitaldiko aurrekontuenak	0		0	
(+) Aurrekontu itxienak	0		0	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	8.130		3.770	
(+) Merkataritzako eragiketenak	0		0	
4. (+) Aplikatzeko dauden kontu-sailak		0		0
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatu gabeak	0		0	
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatu gabeak	0		0	
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)		81.778		135.680
II. Gehiegizko finantzaketa atikia		0		0
III. Kobratzeko zailak diren saldoak		0		0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza gerakina= (I-II-III)		81.778		135.680

V.4. BALANTZEA

Aktiboa	2019	2020
Ibilgetu garbia	15.033	11.988
Altzariak eta tresneria	571	1.221
Informazioa prozesatzeko tresneria	319	160
Irudi korporatiboa	14.143	10.607
Aktibo zirkulatzaila	89.907	139.450
Diruzaintza	89.907	139.368
Epe laburreko zordunak	0	82
Aktiboa, guztira	104.941	151.438

Ondare garbia eta pasiboa	2019	2020
Ondare garbia	96.811	147.668
Ekitaldiko emaitza	81.778	135.679
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteke daudenak	15.033	11.989
Epe laburreko hartzekodunak	8.130	3.770
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak		
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	8.130	3.770
Ogasun publikoa, 2017ko gerakina itzultzeagatik		
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	104.941	151.438

V.5. EKONOMIA ETA ONDARE EMAITZAKO KONTUA

Zor	2019	2020	Hartzeko	2019	2020
Langile-gastuak	151.089	148.400	Diru-sarrera finantzarioak	0	0
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	144.182	95.870	Transferentzia arruntak	377.049	379.949
Amortizazioa	4.266	4.441	Ibilgeturako diru-laguntzen emaitzen egozpena	4.266	4.441
<i>Aurrezkia (emaitza positiboa)</i>	81.778	135.679			
Guztira	381.315	384.390	Guztira	381.315	384.390

V.6. ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

Deskribapena	Sortutako ondarea	Bestelako ondare-gehikuntzak	Guztira
Amaierako ondare garbia, 2019	81.778	15.033	96.811
Ekitaldiko aldeak	53.901	-3.044	50.857
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	135.679	-4.441	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-81.778		
Ondare garbian izandako beste alde batzuk		1.397	
Amaierako ondare garbia, 2020	135.679	11.989	147.668

V.7. ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2019	2020
I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak		
A) Kobrantzak:	265.804	248.642
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	264.924	248.642
Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	0
Beste kobrantza batzuk	880	0
B) Ordainketak:	-164.366	-116.007
Hornidurak	38.391	34.938
Bertaratze-dietak eta kontseilarien irizpenengatiko ordainak	94.529	57.403
Beste ente publiko batzuen kontura bildutako baliabideen kudeaketa	31.446	23.666
Ordaindutako interesak	0	0
<i>Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (A+B)</i>	<i>101.438</i>	<i>132.635</i>
II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak		
C) Kobrantzak:		
Inbertsio errealeen salmenta	0	0
Finantza-aktiboen salmenta	0	0
D) Ordainketak:	0	-1.396
Inbertsio errealeen erosketa	0	1.396
Finantza-aktiboen erosketa	0	0
<i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (C+D)</i>	<i>0</i>	<i>-1.396</i>
III. Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak		
E) Ondarean izandako gehikuntzak		
Ondareari egindako ekarpenak		
F) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egindako ordainketak	-108.917	-81.778
Ekarpenen itzulketa eta emaitzen banaketa	108.917	81.778
<i>Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (E+F)</i>	<i>-108.917</i>	<i>-81.778</i>
VII. Eskudiruaren handitze/gutxitze garbia	-7.479	49.461
Eskudirua ekitaldiaren hasieran	97.386	89.907
Eskudirua ekitaldiaren amaieran	89.907	139.368

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Kontseiluaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. AURREKONTU-LIKIDAZIOA

- Kontseiluaren aitortutako betebeharrak 245.666 euro egin dute, betetze-maila ehuneko 54koa izan da, eta horien ehuneko 100 ordaindu da. 2019. urtearekin alderatuta, ehuneko 17 egin dute behera, batez ere ondasun arruntetan eta zerbitzuetan izandako jaitsieraren ondorioz.

- Kontseiluak 2020an eta 2019an gastatutako 100 euro bakoitzetik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	2019	2020	Finantzabidea	2019	2020
Langileak	51	60	Transferentzia arruntak	100	99
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	49	39	Kapital-transferentziak	0	1
Inbertsioak	0	1			
	100	100		100	100

- Aitortutako eskubideek 381.346 euro egin dute, haien betetze-maila % 84koa izan da eta guztiak ordaindu dira. Diru-sarrera horiek Foru Administrazioetik jasotako transferentzietatik datoz. Horietatik 379.950 euro gastu arruntak finantzatzera bideratu dira eta 1.397 euro, berriz, inbertsio-gastuetara.

- Nafarroako Kontseiluak, arau indardunari jarraituz, 135.680 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari.

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	381.346
Gastuak, guztira	245.666
Aurrekontuko superabita	135.680
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	135.680

VI.2. AURREKONTUETAKO GASTUAK

- Nafarroako Kontseiluko langileen gastuak 148.400 eurokoak izan dira 2020an, 2019an baino ehuneko bi gutxiago. Kontseiluaren 2020ko plantilla organikoa bi lanpostuk osatuta dago: legelari bat, funtzionarioa (lanpostua hutsik gabe) eta lehendakariaren idazkari bat, zeina izendapen askeko behin-behineko langilea baita. 2020ko abenduaren 31n, Kontseiluan bi langilek egin dute lan: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan dagoen Nafarroako Gobernuako funtzionarioa, eta lehendakariaren idazkari bat.

- 2020an, Kontseiluak 30 irizpen eman zituen; 2019an baino 24 gutxiago. Kontseiluko kideei irizpen horiek egiteagatik ematen zaizkien ordainsariek 60.012 euro egin dute, eta bertaratzedietek, berriz, 15.695 euro egin dute. Kontseiluko kideek jasotako konpentsazio ekonomikoen guztizkoa ehuneko 40 txikiagoa da aurreko ekitaldikoa baino. Txostenak prestatzeagatik ordainsariak zuzen egozten zaizkio gastu arrunten 2. kapitulari.

- Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 95.870 euro egin zuten 2020an; 2019an baino ehuneko 33 gutxiago. Gastu horiek nabarmen murriztu dira COVID 19aren pandemiaren ondorioz. Jarduera apagoa izatearen ondorioz, irizpen gutxiago egin dira, eta murriztu egin da kontseilukideei ematen zaizkien konpentsazioen zenbatekoa; halaber, funtzionamendu arruntaren gastua txikiagoa izan da.

VI.3. AURREKO URTEETAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Aurreko urteetako gomendioen jarraipenak indarrean jarraitzen dute:

- *Kontseiluko plantilla organikoan dagoen lanpostu hutsaren egoera aztertzea, sortu zenetik zerbitzu eginkizunetan bete baita, lanpostu horiek behin betikoz bete izan dadin, indarreko araudiaren arabera deialdi publikoan.*

- *Langile-gastuen 1. kapitulan erregistratzea Kontseiluko kideek txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik jasotako konpentsazioei buruzko zenbatekoak, norberaren lanetik zuzenean eratorritako kontraprestazioak baitira.*

- *Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako programa informatiko bat ezartzeko aukera aztertzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasi andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

